

## Juan Crisóstomo de Arriaga (1806-1826)

**EGILEA:** Jorge Beramendi  
**ESTEKA:** Liburutegi Zerbitzua

### Euskal musika barrokoa

Arriagari buruz aritu baino lehen, garrantzitsua da 18. mendeko bigarren zatiko euskal musikaz aritzea, musikagilea sortu baino aurretiko musikaz.

Euskal barrokoak ez du kronologia europarra jarraitzen, zertxobait beranduago dator. Katedralen kapera-maisuak ziren organistekin agertzen da XVIII. mendeko lehenengo zatian: [Juan Francés de Iribarren](#) (1699-1767), [Joaquín de Oxinaga](#) (1719-1789) eta [Sebastián Albero](#) (1722-1756). Bigarren zatian Peñaflorida kondeak [Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte](#)a sortzen du eta zenbait musikagilek elkarte horren bazkide izango dira: Joseph Zailorda (1688-1799), [Manuel Gamarra](#) (1723-1791) eta Juan Andrés Lombide (1745-?).

### Euskal klasizismoa

Mendebaldeko kulturaren musika-bilakaera jarraituz, Euskal Herria klasizismoan sartzen da [Pedro Aranaz](#) (1740-1820) eta [Joaquín Tadeo Murguía](#) (1759-1836) musikagileekin. Era berean, Ibarzabal, Larrañaga, Echeberría, Eguiguren eta [Sostoa](#) anaiak bezalako musikariak hartuko zuen Capilla de Aranzazu aipatuko dugu. Musikari horiek kontzertu, sonata, tokata eta minuetak idatzi zituzten. Musika-mugimendu horiekin batera eliza-musika ere idazten da. Europar izaerako klasizismoa Arriagarekin batera etorriko da.

### Jaiotza



Juan Crisóstomo Jacobo Antonio de Arriaga y Balzola 1806ko urtarrilak 27an jaio zen Somera kaleko 12. zenbakian. Zehazki hogeita hamar urte lehenago [Wolfgang Amadeus Mozart](#) musikari ospetsua jaio zen eta sarritan bien arteko konparazioa egiten da beren goiztiartasun, konposizio-erraztasun eta jeinuarengatik.

Musikagilearen aita organo-jole izana zen Berriatuko eliz parrokian. Ezkondu eta gero Bilbon finkatu zen saltzaile gisa. Juan Simón jauna izan zen bere semearen lehenengo maisua. Arriagaren anai bat, Ramón Prudencio, birtuoso izan zen biolin eta gitarra jotzen. Guztira zortzi anai-arreba

ziren.

### Hautzaroa eta “Nada es Mucho”

Haurra zelarik, Juan Crisóstomo [Bilboko Elkarte Filarmonikoak](#) eskainitako kontzertuetara joaten zen. Musika hain gustuko zuenez [Ensayo de Octeto](#) lana idatzi zuen 11 urte zituelarik. José Luis de Torresi eskaini zion azter zezan eta honek "[Nada y Mucho](#)" idatzi zuen lehenengo orrialdean. Lanak ez zuela ezer balio baina 11 urteko mutiko baten lana izateko asko zela adierazi nahi zuen horrekin. Lanak bi tempi zituen, Andante Mosso eta Polaca. Bi biolin, biola, kontrabaxua, gitarra, tronpa eta pianorako idatzi zuen. Haurra zelarik ere, musika-tresna guzti horien konposizio-teknikak menderatzen zituen. Hasierakoa akorde handiekin azaltzen da eta espresio eta gustu oneko esaldiak hartzen ditu eta bigarren denbora melodia-izaerako musika freskoa eta erraza da. Musika idazteaz aparte, Arriagak marrazten zuen ere eta partituraren lehenengo orrialdean Torrestarren etxean ospaturiko kontzertua marraztu zuen. Bertan Torres jauna, bere alaba Luisa de Torres eta Arriaga bera agertzen ziren, musika jarraitzen zuten lagunekin eta solasean zeuden beste zenbaitekin batera.

### **Nonetto obertura**

Bere bigarren lana 12 urterekin idatzi zuen bi biolin, biola, kontrabaxu, flauta, bi klarinete eta bi tronpetarako. Akademia Filarmonikoari eskaini zion eta bere konposizio errazaren ondorio ziren melodiak azaltzen zituen. Oviedoko Unibertsitateko José Antonio Gómez Rodríguez musika-kritikoak dioen arabera, azalean ondorengo hamarrekoa zeukan:

De Orfeo La Sociedad  
Armonía me inspiró  
Y melodía sembró  
Dulzuras en tierna edad  
Hoy brota su amenidad  
Y aunque lleno de rubor  
Grato ofrece mi candor  
A la gran "Filarmonía"  
Una nueva sinfonía  
Obra aún de mi temor.

Aipatu [oberturak 1 zenbakia](#) eraman arren Arriagaren bigarren lana da eta 382 neurri ditu. Sonata-tamaina handia da orokorrean "[Nonetto](#)" deitzen den lan-mota honentzako. Ez da aparteko lana baina bere egitura bikainki osaturik dago nerabezaroan sartzear dagoen haur batena izateko. Nahiz eta harmonia ikasketarik ez egin, garai horren (1818) konposizio-estiloa bereganatu zuen dagoeneko.

Urte horretan bere ama hil zen, bere anai Simón Joaquín, Ramón Prudencio eta Luisa arreba ezkondata zeuden eta Felipa arreba moja zen. Azken honek Cartas Filosóficas lana idatziko zuen urte batzuk beranduago.

### **Nerabezaroa eta "Los Esclavos Felices"**

Lagunek esandakoari jarraituz, opera bat idazten hasi zen Luciano Francisco Comellaren [Los Esclavos Felices](#) libretoan oinarrituz, 1820an 13 urterekin

bukatu zuena. Comellaren jatorrizko opera 1793ko azaroaren 27an estreinatu zuen Martínez konpainiak eta solista nagusiena Lorenzo Correa izan zen. Arriagaren opera, aldiz, Bilbon estreinatu zen arrakasta handiarekin eta Manuel García abeslari eta musikagileak Arriagaren aitari eskatu zion opera Parisen, Antzoki Italiarran, egiteko asmoarekin.

Kritika onak jaso zituen garai hartako egunkarietan. Harmonia ez jakin arren Arriaga hain musika ederra egiteko kapaza izateak publikoa harritzen zuen. Tamalez, opera ez da bere osotasunean mantendu, gorde zenean arratoiek jan baitzuten. Obertura berreskuratu zen soilik eta beste zati guztiekin bi sorta egin ziren. Ez dakigu zehazki Parisen antzeztu ote zen ala ez, baina denbora aurrera zihoanez eta hondamendia ikusita, Juan de Eresalek lana berriro osatzen ahalegindu zen. 398 neurri berreskuratu zituen eta hiru zatitan banatzen dira: Andantino pastoral, 37 neurri; Allegro Assai, 277 neurri eta Piu mosso, 83 neurri. Musika-tresnei dagokionean, bi flauta, bi oboe, bi klarinete si bemolean, bi fagot, bi tronpa fan, tinbalak eta hari-talde osorako idatzi zuen Arriagak.

Lehenengo zatia re maiorrean idazten du 6:8 neurrian. Doinu pastoral ederra, lehenik eta behin hari-tresnak hasten dira gero haize-tresnetara jotzeko. Tempo aldaketak bigarren zatia iragartzen du eta honek trantsizio batekin garatzen diren bi gai hartzen ditu. Ez dugu lana osotasunean aztertu nahi, Gómez Rodríguez-en hitzak jasoko ditugu soilik:

"Bere ustezko soiltasunagatik, haur batentzat aurrerapauso handia den lan baten aurrean gaude. Bere akabera bikainak, harien esku utzitako zatien edertasunak eta Arriagaren testura tratatzeko moduak freskotasan paregabea ematen diote lanari. Horri erritmo-bereizitasunak gehitzen badiogu, lana instintiboki eta dudarik gabe antzerkira eta bere helburuetara atxikitzen dela aitortu beharra dago..., ez da gutxi."

### **Paris aurretiko lanak**

1820an opus 17 zeramatzan kuartettoa idatzi zuen, bere egitura jatorrizko melodia bat eta biolinerako egindako bariazioak zelarik. Hurrengo urtean, 15 urterekin, "La húngara" idatzi zuen biolin eta baxurako bariazioekin, gerora kuartettoa bilakatuko zuena. Pariseko kontserbatorioan sartzearren aurkeztuko zuen Stabat Mater lana idatzi zuen ere. Senitartekoek Juanito, horrela deitzen zuten, goi-mailako musika-zentro batean sartzeko bultzatu zuten eta garai horretan Paris zen musikarien gunea.

### **Paris eta kontserbatorioa**

1822ko irailaren 26an Arriaga Pariserantz abiatu zen. Saint Honoré kalean finkatu zen, Tuilleriak lorategietatik gertu.

[Luigi Cherubini](#)k zuzenduriko Pariseko Kontserbatorioan sartu zen eta ikasketak ondorengo maisuekin egin zituen: Guerin biolin-maisuarekin, François Fétisekin harmonia eta Cherubini kontrapuntua irakasten.

[François Joseph Fétis](#) (1784-1871), Monsen (Belgika) jaioa, musikagile, kantu-irakasle, teoria-kritiko, orkestra-zuzendari eta musika-historialari izan zen eta Arriaga eta bere Tres Cuartetos obrari buruzko gogoeta agertzen du bere musikari-biografiaren hiztegiaren: "Ez dago orijinalago, finago eta hobe idatzita dagoen ezertan pentsatzerik. Egileak jotzen zituenean, entzuleen miresmena lortzen zuen."

Fétis Pariseko Kontserbatorioan egon zen Arriagak han emandako urte guztietan, 1827 liburuzain izendatu zuten eta 1833an Bruselako Kontserbatorioko zuzendari izan zen.

[María Luigi Carlos Zenobio Salvatore Cherubini](#) (1760-1842), zuzendari eta kontrapuntu-maisua, Florentzian jaio zen baina Parisen urte asko eman zituen, kontserbatorioa zuzentzen berrogei urte egon zen adibidez. Bere opera, eliza-musika eta bestelako lanek [Beethoven](#) eta [Mendelssohnen](#) laudorioa jaso zuten. Esan ohi da Arriagaren kontrapuntu-lanek bere osasuna ahuldu eta heriotzarantz eramane zutela.

Punta-puntako irakasleak izan zituen eta hauek musika-teknika irakatsi zioten ikasleari. Fétisek Arriagari buruz dio:

"Ses progrès tinrent du prodige; moins de trois mois lui suffirent pour acquérir une connaissance parfaite de l'harmonie; et au bout de deux années, il n'était aucune difficulté du contrepoint et de la fugue dont il en se jouait. (?) Les progrès de ce jeune artiste dans l'art de jouer le violon en furent pas moins rapides: la nature l'avait organisé pour faire bien tout ce qui est du domaine de la musique."

*(Bere aurrerapenak miresgarriak izan ziren, hiru hilabetetan erabateko harmonia-ezagutza bereganatu zuen eta bi urte beranduago ez zuen inolako arazorik kontrapuntu eta fugarekin. Biolineko ikasketek abiadura berdina izan zuten, naturak dena eman zion musikaren inguruan egindako guztia bikainki egin zezan.)*

Arriagak idatzitako graduazio-lanak Cherubiniren miresmena lortu zuen hasiera-hasieratik. Et vitam venturi saeculi izenekoak, zortzi ahotserako eliza-musika zen, Kredoan oinarrituta, baina tamalez betirako galdu da.

### [Hiru kuarteto arkurako](#)

Pariseko Ph. Pétitek [hiru kuartetoak](#) argitaratu zituen "1er livre de Quatuors" izenarekin. Musikagile Bilbotarrak 1823an idatzi zituela uste da, hau da, hamazazpi urterekin. Fétis bere irakasleak esandakoaren arabera kritikoen onespina jaso zuten orijinalak, dotoreak eta xahuki idatzita zeudela idatzi baitzuten. Izenburuak azaltzen duenaren arabera egileak musika-mota hau jorratzen jarraitzeko asmoa zuen, lehenengo bolumena baita. Hasiera arrakastatsua izan zuen eta zenbait adituek diote bere lanik onena dela. Kutsu min eta pertsonala dauka.

Lehenengo kuartetoa orekatuena eta zailena da.

Marcos Costak bere azterketan dioen bezalaxe, hasierako Allegroak bi aurkako gai elkarren ondoan jartzen ditu eta lan horren zati batek, trioak, espainiar kutsua dauka.

Hirugarren kuartettoa ahulena da agian.

Orokorrean, maisulana da eta Arriagaren lanen muina da.

### Orkestra handirako sinfonia re minorrean

Orain arte aipatu lanek baino helduago eta landuago lana dirudi eta, hortaz, uste da Arriagak 1824-1826 urteetan idatzi zuela.

1888. urtean estreinatu zen eta Arriaga Batzorde Iraunkorrek 1933an argitaratu zuen, lehenengo eta laugarren mugimenduak amaitu gabe zeudelarik, 170 eta 30 neurriekin hurrenez hurren.

Jarraian Oviedoko Unibertsitateko José Antonio Gómez Rodríguezek lan honen inguruan esandakoa dator:

"Sarrera 35 neurriko Adagioa da (4:4) eta ondoren lehenengo mugimendua hasten da Allegro vivace batekin (2:4), kuartetoen edozein sarrera baino askoz ere luzeagoa. Ez da Allegroa aurretiko dominantearen orbitan kokatzen den "prestaketa" akustiko bat, ez da berriro errepikatuko lehenengo mugimendu luze horretan, ez osorik ezta zatiren bat ere. Kuartetoetan ez bezala, sinfonia honen Adagioa ez da Rondoarekin lotzen, sonataren egiturarekin baizik.

Adagioa aurreko allegro vivacearen motiboetatik dator eta musika-lan honen lokarri den beheranzko hiru notako motiboa sortzen du. Bestalde, lan honen ezaugarririk bitxienetako bat azpimarratu nahiko nuke: Arriagak, sinfonia re minorrean hasi eta hortik re maior handi eta distiratsura (hain gustuko duen tonalitatea gainera) eraman beharrean, justu kontrakoa egiten du: tonika maiorrean jiraka dabiltzan 35 neurri sarrera moduan, ondoren re minorreko Allegro vivacera pasatzeko. Hori bai, modulazio ezberdinak erabiliz: mi minor, fa sostenitu minor, la maior, re minor, si minor... Bere aukeraketaren nahia ez da agertzen azkeneko mugimendura arte, re minorrean idatzita. Irtenbidea biribila da: sinfoniaren lau mugimenduek hainbeste zutabetan egituratzen dira eta hauen tonalitateak argia ematen dio izugarritzko harmonia duen lan honi.

Bestalde, Arriagaren material tematikoak sortzeko ahalmenaren adierazle da sinfonia hau. Beste adibide bat: lehenengo mugimenduan agertzen diren materialek hasieran agertutako ideien garapen logikoa baino ez dira (nn 1-4), geroago handitu, nahasten eta garatuko diren ideiak alegia".

### **Osteko beste zenbait lan**

Ostean "Erminia" idatzi zuen, bi iruditan banatzen den akto bakarreko eszena lirikoa. "Medea" idatzi zuen ere, orkestrako akonpainamendua duen sopranoarako aria. Parisen idatzitako beste zenbait lan: "Tres Estudios" edo

“Caprichos para Piano”, “Edipo” orkestrako akonpainamendua duen tenorerako lana eta All´Aurora, orkestra, tenore eta baxurako lana.

Azkenik, “Agar” lana ere ezagutzen du. Adituen ustez bere azkeneko lana izan zen jatorrizko partituraren azkeneko bi neurriek musikagilearen ez den kaligrafía azaltzen baitute.

## **Heriotza**

Arriagak esfortzu handia egin zuen bere lanen konposizio eta exekuzioan. Gainera, Kontserbatorioan klaseak jasotzen zituen. Aktibitate handi honek eta bere osasun ahulak ohean egotera eraman zuten. Cirilo Pérez de Nenin bilbotarra eta Madrilgo Kontserbatorioko Pedro Albéniz, Parisen garai hartan, bisitarien artean zeuden. 1826ko urtarrilaren 17an hil zen azken honen besoetan eta Montmartreko Ipar Hilerriko hobi komun batean lurperatu zuten.

Pedro Albénizek honela idatzi zion musikagilearen aitari:

"Harreman estua izan genuen azken sei hilabetetan eta bere heriotza-egunean ere berarekin egon nintzen. Gaixotasunaren inguruan, aitortu soilik nire ustez kontserbatorioaren kontrapuntu-sailean egindako esfortzuetatik eta etxean musika idaztetik etorritako bularreko angina zuela. Bere heriotza zuretzat bihozmin handia den bezala, halakoa da ere musikaren artearentzat."

## **Bere lanak heriotzaren ondoren**

Zendutako musikagilearen biolina eta bere lanen partiturak bere aitaren etxera bidali zituzten. Aitak kakao, arrosa, azukrea, argizaria eta artilearekin egiten zuen lan eta Bilbo eta Baiona arteko bidaia egiten zuten bi itsasontzi zituen. Arriagaren lanak ganbaran gorde ziren.

Berrogei urte beranduago musikagilearen iloba batek, Emiliano de Arriagak, bere lanak berreskuratu eta gelditzen zen guztia berregituratu egin zuen.

1884. urtean kuartetoak estreinatu ziren arrakasta handiarekin. Bilbon ospatutako bere jaiotzaren mendeurrenean honako programa egon zen: Obertura opus 20, Audi Benigne (Orfeón Euskeria eta Elkarte Koralak abestuta), Stabat Mater eta Los Esclavos Felices operaren obertura.

Arriaga Batzorde Iraunkorra sortu zen musikagilearen ondarea mantentzearen.

## **Grabaketak**

Decca Records etxe estatubatuarrak disko bat kaleratu zuen. Madrilgo Orkestra Sinfonikoak Los Esclavos Felicesen obertura jotzen du Jesús de Aranbarriren zuzendaritzapean. Gillet laukote estatubatuarrak Tres Cuartetos lana grabatu zuen.

Alan Podigo musikologoak Arriaga Society of America sortu zuen Goldenen, Colorado, musikagilearen lana ezagutaraztearren eta hango orkestrak bere erreperitorio arruntean sartu du bere lana.